

Debagoieneko Lanbide Heziketako II Azoka Arrasaten.

2010/04/20

Mondragon Goi Eskola Politeknikoak Debagoieneko gainontzeko Lanbide heziketako zentroekin batera Lanbide Heziketako II Azokan parte hartu du. Azoka apirilaren 13tik 17ra egin da.

Debabagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziak antolatu du, *"Formazioa lanerako zure aukera!"* lemapean. Bigarren edizio honetan, hitzaldi ziklo bat egon da, ikasle, guraso, langabetu edo lanean daudenei, gaur egun eskualdeko lanbide heziketak eskaintzen dituen aukeren berri emateko.

